

Aitor Sorreluz Aginaga

«Arantzazuk dena eman dit»

Uztailak 3. Goizeko bederatziak. Tren geltokian, lankide ohi bat hurreratu, eta: «Hi, Joxe Azurmendi joan zaigula!». ‘Gizaberetxoa’ izan genuen hizketagai. Neure baitan, Azurmendiren lanean zehar-lerro izan den gizaberetxoaren oihartzunak bete zuen Donostiarako bidea.

Gogoan ditut Joxeren filosofia klaseak, EHUn. Modernitatearen gehiegikeriak seinalatzen zizkigun, eta handik eta hemendik, tresneria intelektualez hornitu gintuen, diskurtso modernoaren zirrikitueta palanka eginez, errelatu hori ikuspegi kritikoz begiratzeko. Subjektu ez den oro objektu da, eta modernitatearen mitoak, teknikaren bidez, mundua objektu erabilgarrien biltegi bihurtu duela zioen Joxek. Ezin gauzek gauza izan, ezin besteek beste izan: dena da objektu, subjektu ahalguztidun batek erabil dezakeen objektu. Errezeloa, gazteegiak ginelan ezer ulertzeko. Niri Arantzazuk eta Bitoriano Gandiagak erakutsi didate, gerora, Azurmendirenganaino iristen.

Gandiagaren *Elorri* olerki-bildumaren hitzaurreak dio: «Bai, giza-bizitza ere halakoxea omen da [elorrria bezalakoxea]: txalkor, zarpail, arantzez josia, mina eta samina alde guztietatik dariola; hala ere, inoiz badaki lore txuri txatxarrak ematen». Espiritualtasun frantziskotarren irudi paregabea. *Elorri* osatzen duten olerkiak Joxek bakan-du, sailkatu eta sortatu zituen, hogeitertekin, 1961ean. Joxek berak onartu zuen lan horrek haren pentsamenduan izandako eragina. Razionalismoaren izenean espiritualtasun frantziskotarra alboratzen eta desprestigiatzeko badugu, ezinezkoa da gizaberetxoaren nozioa bere sakontasunean ulertzea.

Joxek, bere azken elkarriketan, hala zioen (*Arantzazu* 1.024, 29-33):

Gandiagak Arantzazuko bide eta parajeetan praktikatu egin du pentsamendu frantziskotar hori eta horri forma poetikoa eman. Horrela, Gandiagak beste Jainko bat eman digu, Naturarekin ba-

tegina, edo beste begi batzuk Jainkoa sumatzeko. Jainkoaren mito berri bat. Arantzazuren mito berri bat.

Gertatzen da, ordea, «tradizioen mundu zaharra puskatuta, ideal berrien mundu berri bat asmatu ezinda gabiltzala». Ezin elkar begiratu, akaso. Mundu bat erabat desagertu da, baina ez da ordezkorik eraiki. Horren seme-alaba gara, nonbait: «Gizona mixerable da/ [...] Zer haiz ba! ez zekiagu/ begiz begi bata bestea/ begiratzen-eta» (*Olerti*, 1968 III-IV, 28. or.). Joxek hori idatzi zuenean, Arantzazuko frisoa hutsik zegoen; Oteizaren apostoluak errepide bazterrean, botata. «Tiriki, tauki, tauki, mailuaren hotsa. Etsipen kolpe bat da ukaldi bakoitza».

Azken egunak Gandiagarekin liburuan, Joxek dio: «Gandiagaren fedea eta Jainkoa, niretzat, arrotza ez, baina, bere ebidentzia masiboarekin, kasik ikaratzen ninduen zerbait zen. Errealismo ikaragarrikoa» (135. or.). Uste dut liburu osoa Gandiagaren mundu ikuskera, Gandiagaren Arantzazu, arrazoimenaren bidez ulertzeko eta azaltzeko saiakera dela; eta, bide batez, sakoneko Azurmendi ulertzeko gakoa. Horren adibide, Arantzazu altzo gisa nola irudikatzen duen (I. kap.) edo Lucio Muñozen absidearen deskribapena (III. kap.).

Gandiagaren begiradapean ikusten dugun Arantzazu hori esna dago, eta Artaso, lo. «Nik ez dut esnatuko, baina bai maitatu; baina bai darrion lehen arnasatik hartu», dio Gandiagak (*Arantzazu* 517, 139. or.). Artaso-maldako pleguan mila eta mila hitz sakon gordetzen baitira; lurraren sakonean, bide zaharron esaldi luzeetan. Arantzazu, eraikin berri, harri zaharrez eraikia (*Arantzazu* 1.022, 22-23).

Arantzazuk dena eman dit, aitortzen du Joxek (*Arantzazu* 1.024, 32. or.):

Eman, dena. Txikiaren eta pobrearen maitasuna, diferentearen errespetua, adaptatzen jakitea, artearen zaletasuna, etab. etab. Bizitzan gidatu eta poztu nauten balioak Arantzazuk eman dizkit...

Han daude bere errautsak, Arantzazun, Haitzabali begira, Artaso atzean duela. Ondoan, *Hiru gizon bakarka*.